

8

artikulua



EKONOMIA

LAUDIO

trafikoa eta garraioa

XXXII



21
UDALSAREA

Tokiko Agenda 21
Garapen Jasangarriaren Programa Laudion



Motoredun trafikoa gero eta ingurugiro arazorik garrantzitsuena dela euskal udaletan.

Aireko kutsadura handitu egiten du, zaratak ozenagotu eta erregai ez berriztagarrien kontsumo garrantzitsua suposatzen du, hala nola hirietan azalera handiak okupatu beharra,

bestela izatekotan, beste erabilera batzuetarako eskaini ahal zirenak.

Autoa gehiegi erabiltzearen eraginetako beste bi pilaketa edo samaldatan harrapatua izateko arazoak eta oinezkoentzako sortzen den istripuen arriskua dira.

trafikoa eta garraioa laudion

Garraio jasangarriko politika baten helburua izan behar da autoaren erabilera gutxitzea; erabiltzea ahal denik eta gehien eta ahal den bezainbestean garraio publikoa eta beste baliabide alternatiboen eta ez horren kutsakorren erabilera bultzatzea, hala nola, bizikleta, garraio publikoa edo oinezko ibilaldia.

Laudiok trenbide oso linea ona du Bilbora, bidaiarien zirkulazio arina eskaintzen duena. Baina, Gasteizera joateko errepideko garraio publikoaren lotura da ez horren ona, nahiz eta azken urteotan hobekuntza handiak lortu diren.

Oinezkoen mugikortasunaz, gehituko diren hurbileko eta inguruko oinezkoentzako alderdiak bere garrantzia izango du, herriko erdi alde osoaren oinezkoentzarekin eta Nerbioi ibaiarekiko bihar-etziko jarraiko Parkearen eraikuntzaz.

aholkuak

- Erabili garraio publikoa joan-etorrietan (autobusa, trena, metroa edo tranbia).
- Ibilbide bera egiteko, lagun edo lankideekin automobil bakarrean joan.
- Automobilaren mantentze-lanak aldian-aldian eta behar bezala egin, haren erregaia aurreztu eta ingurumen-inpaktua murrizteko (motorra, gurpilak, etab.)
- Itzali automobilaren motorra, 2 minututik gora geldirik baldin bazaude.

Jasangarritasunaren helburu orokorra:

- Motoredun garraioaren erabilera gutxitzea.
- Garraio publikoa gehiago erabiltzea.
- Bultzatu eta sustatzea beste aukerazko bide eta ez horren kutsagarriak, hala nola bizikleta, garraio publikoa eta ibilaldia.



Laudioren Jasangarritasunerako
ekintza plana



Laudion zer egin da?

- Herriko plaza eta Izoria, Solozelai, Elizalde, Pio XII eta Araba kaleak oinezkotzea.
- Aretako Tren Geltokiaren ondoan 175 aparkaleku egin dira.
- Behin-behineko aparkalekua Aldaikorreka plazan eta Lanbide Heziketako aintzinako kanpo futbolean.

Laudion zer falta da egiteko?

Gasteizerako joan-etorrietarako garraio publikoa hobetzea

Laudioko Ekimen Planak planteatzen du garraio publikoa hobetzea Gasteizerako joan-etorrietarako. Gasteizekin eduki behar den harremana eta hiri horra joan-etorriak egiteko dagoen garraio publikoaren eskaintza eskasa izanik, herritarrak behartuta daude ibilgailu pribatua erabiltzera. Ildo honetatik, derrigorrezkoa da garraio publikoa hobetzea arabar hiribururako joan-etorriak egiteko.

Oinezkoentzako esparruak era garrantzitsuan handitzea.

Laudioko Udalak aurreikusita dauka gehitzea era garrantzitsuan oinezkoentzako zonak trafikoaren mehatxupetik libratutakoak, herriko erdi aldearen oinezkotzearekin eta bihar-etziko Nerbioi Ibaiaren lerroan jarraiko Parkearekin.

Aparkamendu leku gehiago egitea

Udalak aurreikusita daukan akzioetako bat lurpeko aparkalekuen eraikuntza da, bat Aldaikorreka plazan eta bestea Alberto Acero



Zerbaite egiteke geratzen dela uzte baduzu, parte artu **Laudio denon arteko konpromisu bat**.

Hau da 13 artikuludun bildumaren bederatzigarren alea. Aleren bat ez badaukazu Hirigintza eta Ingurugiro arloan eskatu. Udaletxeak aleak biltzeko karpeta eskeintzen dizu.